

LITERATURA. Gogoetarako hiru liburu berri argitaratu ditu Jakinen Irakurgaiak bildumak

Filosofiaren alde ilunak argitzera dator Agustin Arrietaren liburua

Rilkek poetagai bati aholkuak emateko idatzi zituen hamar eskutitz itzuli ditu Patxi Salaberrik

Leire Aramendi | DONOSTIA

«Filosofia ikasi nahi dut, horrela exoterismoa ikasteko aukera izango dudalako». Ikasle batek adierazpen horiek egitean, filosofia zer den eta zertarako balio duen azaltzen duen liburu baten beharraz ohartu zen Agustin Arrieta, EHUko Filosofia Fakultateko irakaslea. Izan ere, Arrietaren iritziz, gaur egun *filosofia* hitza «galdu xamar dago hizkuntzaren barruan», eta sarritan kontzeptua modu «harrigarrian» erabiltzen da. Ondorioz, filosofiarako sarrera bat egiten du argitaratu berri duen lanean: *Zertaz dihardu filosofiak?* liburua.

Arrietaren liburua Jakin Irakurgaiak sailaren barnean argitaratu dute. Horrekin batera, Patxi Salaberrik itzulitako *Poeta gazte bati idatziak* eta Jeremy Benthamen *Panoptikoa* Ibon Plazaolak itzulia kaleratu dituzte. Pentsamendua hedatzea helburu du bilduma horrek, eta gogoeta oinarrian duten hiru liburu ateratzen ditu urtero.

Filosofiaren egoera iluna dela uste du Arrietak; gainera, bere zeregina eta balioa behin eta berri justifikatu behar ditu. Kontzeptu horren esanahiari eutsi eta bere kokapena zein den azaldu nahi izan du *Zertaz dihardu filosofiak?* liburuan. Alde batetik, filosofiaren zentzuaz dihardu; baina, bestetik, filosofiarekin lotutako hainbat gai lantzen ditu. Kausa-efektu harremana, esanahiaren arazoa, uste izatearen eta jakitearen arteko desberdintasunak eta matematikari edo



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS
Agustin Arrieta, *Zertaz dihardu filosofiak?* liburua idazlea.

etikari buruzko gogoetak dira gai horietako batzuk. Filosofia-ren inguruko eremu guztiak ukitzen ditu; etika, epistemologia, hizkuntzaren filosofia eta metafisika, besteak beste.

Euskarak baditu oraindik lan du gabeko hainbat esparru. Ondorioz, irakaskuntzarako erabilgarria izango den filosofiari buruzko euskarazko testu bat idatzi du. Hasieran Simon Blackburnen testu zati bat har-

tu du adibidetzat, eta ondoren, liburu osoan ideia hori garatu du: «Gure ideiak eta kontzeptuak mundua ikusteko erabiltzen ditugun lenteekin pareka daitezke. Filosofiak aztertzen duen objektua lentea bera da».

Poeta baten aholkuak

«Sar zaitez zeure baitan, azter ezazu idazten duzunaren funtsa. Horren arabera, idazteko beharra sentitzen baduzu, ida-

ESANAK

AGUSTIN ARRIETA
(Idazlea)

«Sarritan filosofia kontzeptua modu harrigarrian erabiltzen da»

PATXI SALABERRI
(Itzultzailea)

«Poemen azpian dagoen ikusmoldea, pentsamendua eta filosofia azaltzen ditu Rilkek eskutitzetan»

IÑAKI SOTO
(UEUko Filosofia saileko arduraduna)

«Hausnarketa soziopolitikorako interesgarria da, agian, 'Panoptikoa'»

tzi». XX. mende hasieran Rainer Maria Rilkek poeta izan nahi zuen gazte bati emaniko aholkua da.

Rilke poeta aldetik oso ezaguna den arren, ez ditu biltzen haren poemak *Poeta gazte bati idatziak* liburua. Aholku bila joan ziztaion poetagai bati 1903 eta 1908 bitartean Rilkek idatziriko hamar eskutitz itzuli ditu Patxi Salaberri euskal filologiako irakasle eta idazleak.

Itzultzailearen arabera, poeta ezagutzeko eta haren lana ulertzeko giltza izan liteke gutun sorta. «Poemarioen azpian dagoen bere ikusmoldea, pentsamendua eta filosofia azaltzen ditu Rilkek», azaldu zuen Salaberrik. Poeta izan nahi duen gazteari aholkuak emateaz gain, bere obrak idaztean izaten dituen arazoez eta gogoetez mintzatzen zaio. Artelanaren kontzeptuez nahiz heriotzaz, maitasunaz eta bakardadeaz duen ikuspegia agertuko du, besteak beste.

Alemanierazko lirika maila gorenera igo zuen idazlea da Rilke. Poesian erabiltzen duen estilo kriptiko eta itxitik urrutia, liburu irakurterraza da *Poeta gazte bati idatziak*, arratsalde batean irakurtzeko modukoa.

BENTHAMEN ITZULPENEA

Bestelako kartzela eredua jaso du 'Panoptikoa'-k

XVIII. mendearan amaieran Jeremy Bentham pentsalariak Frantziako Iraultzaren biltzarren aurrean aurkeztu zuen proiektua dakar *Panoptikoa* liburua. Ibon Plazaolak itzulia, Udako Euskal Unibertsitatearen eta Jakin argitaletxearen artean atera dute, elkarlanean.

Doktrina utilitaristaren aitatzat jotzen da Bentham. Kartzela eredu bat proposatu zuen. Kartzela proiektu batez gain, beste planteamendu batzuk egiten dituela ohartu zen Foucault XX. mendean. Gaur egungo hausnarketa soziopolitikorako «interesgarria» izan daiteke-

ela uste du UEUko Filosofia saileko arduradun Iñaki Sotok. «Zigor Kodearen aldaketa dela eta sortutako iskanbilin inguruan, *Panoptikoa* bestelako ikuspegia eskaintzen du».

Pentsamendu horretatik abiatuta alternatibak bila daitezkeela adierazi zuen Sotok. «*Panoptikoa* aztertuz, gogoetak alternatibak aurkitzeko modua egin dezake». Euskal Herriko pentsamendua eta filosofiaren inguruan gogoeta egiteko baliagarria izan daitekeela dio.

Proiektuaren aurkezpenaz gain, bi hitzaurrek osatzen dute liburua: Larraitz Ugartek testua aztertu du eta gaur egungo kartzela ereduarekin parekatu; bigarren hitzaurrea *Bentham Proiect*-eko kide Catherine Pease-Watkinek idatzi du.

euskararen
donostia
patronatua



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ipuinen ordua

- **Sorginen itzala, beltza eta itzela**
Urtarrilaren 24an, 18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean
- **Ipuin itzulipurdia**
Urtarrilaren 31n, 18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

hur jolasak

- **Hur jolasak**
Plazara Goaz taldeak antolatuta
Urtarrilaren 25ean,
16.30etatik 18.30etara
Intxaurrendoko Ipar Haizea elkartearen eta Bernat Etxepare plazan

zinea

- **Euskarazko laburmetraiak**
"Txotx", "40 ezetz",
"Topaketa" eta "Basurdea"
Urtarrilaren 25ean, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

ikuskizunak

- **Txio Txioa**
Taun-taun
Urtarrilaren 25ean, 17.00etan
Amarako Ernest Luch Kultur Etxean
- **Txan magoa**
Urtarrilaren 25ean, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

bertsolaritza

- **Bertso Eguna**
Ekitaldi Nagusia
Urtarrilaren 25ean, 18.00etan
Kursaal Auditorioan
- **Afaria eta festa bertsolari eta trikitilariekin**
Urtarrilaren 25ean, 21.00etan
Zubietako Araeta jatetxean

hitzaldia

- **Pangea, kontinenteen sakontasunera bidaia (lehen zatia)**
Ipar Amerika, Hego Amerika eta Australia
Hizlaria: Ander Izagirre
Urtarrilaren 28an, 19.30etan
Koldo Mitxelena Kulturunean
Bageraren astearte kulturalek